Goieki
– GOIERRIKO GARAPEN AGENTZIA –

Zenbakia 6

Martxoa, 2019

INFORMAZIO ORRIA

INNOBIDEAK-KUDEABIDE 5-49

KUDEAKETA AURRERATUAREN BITARTEZ ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO LAGUNTZAK

XEDEA: Kudeaketa Aurreratuko Euskal Ereduarekin lotuta dauden kudeaketa proiektuak burutzea Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Industria arloko enpresak eta horien ekoizpen prozesuarekin zerikusia duten zerbitzu teknikoekin lotuta daudenak, informazioaren eta komunikazioaren gizartearen esparrukoak, 5 eta 49 langile artean dituztenak eta Gipuzkoan Kudeaketa Aurreratua sendotzeko proiektu bat (2B) garatu nahi duten enpresak badira.

ONURADUNAK:

Hurrengo irizpideak betetzen dituzten enpresei esklusiboki zuzenduta dago INNOBIDEAK-Kudeabide:

- Jarduera hauetan badihardute: industria-erauzketa, eraldaketa, produkzioa, produktu-prozesuei lotutako zerbitzu teknikoak (aurrekoekin lotura dutenak), eta informazio- eta komunikazio-gizartearen esparruarekin lotutakoak.
- 5 enplegu baino gehiago eta 49 enplegu baino gutxiago dituzten enpresak.
- Gipuzkoan kokatuta daudenak.
- Egunean izatea Euskalitek egindako Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontraste Txostena, no gomendio gisa jasoko baita Kudeaketa Aurreratuko Finkatze Proiektu bat egitea identifikatu diren hobetu beharreko arloetako batean edo batzuetan.

PROIEKTU MOTAK:

Finkatze Proiektuak (2B): Kudeaketa Aurreratuaren Hasierako Kontraste Txostenari erantzuten dioten finkatze proiektuak, Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren arabera enpresari aurre egiten lagunduko dioten metodologiak eta tresnak erabiltzea eta ezartzea helburu dutenak.

Proiektuak bideratu beharko dira ondorengo eremuetakoren bat gutxienez hobetzera: *Estrategia, Bezeroak, Pertsonak, Gizartea, Berrikuntza* eta *Emaitzak*.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Diru-laguntza itzulezinak dira.

Finkatze Proiektuak (2B): proiektuaren kostu hautagarrien % 60a diruz lagunduko da eta gehienez ere 7.200€ euro izango dira enpresa bakoitzeko.

PROIEKTUAK HASTEKO ETA EXEKUTATZEKO EPEA:

Diruz lagundutako jarduerak diru-laguntza eskaera aurkeztu ondoren hasiko dira gauzatzen.

Enpresa onuradunek bukatuta izan beharko dituzte diruz lagundutako jarduerak eskaeran adierazitako hasiera datatik hasita hamabi hilabete naturaleko epean eta, edozein kasutan, 2020ko urriaren 9a baino lehen.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPA ETA TOKIA:

Enpresa bakoitzak izaera orokorreko proiektu bati dagokion eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du.

Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskera inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren web orrian, https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak.

Eskaera orria eta dokumentazioa, ahal bada, bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliz aurkeztuko dira, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren web orri honen bitartez: http://www.kudeabide.com/index.aspx

Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da eta **2019ko irailaren 27an**, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.